

eskutitzak



bizkaia@egunkaria.com



Egia Jenerala, 3-behea 48010 Bilbo

Zazpikaleetan be, geure herria defendatuko dogu

Anjel Zelaia eta Zazpikaleetako beste 17 auzokide • BILBO

Asko gara gure herriaren gaurko egoeragaitik arduratuta gagozan abertzaleok. Bai, asko gara gure herriaren kontrako etenik bako eraso larriak onartu ezinak dirala pentsetan dogunok.

Arduratuta eta gogaituta gagoz oinarritzko askatasun eta eskubideen ukazioagaitik. Espainiako estatuaren frankismoaren osteko eredu sasi-demokratikoa jasan behar izan dogu azkenengo hamarkadetan, baino gaur egun inoiz baino nabarmenagoa da euskaldunontzat ez dagoela demokraziarik. Espainiako estatuak, ustezko nazionalista batzuren laguntasunagaz, adierazpen askatasuna, alkartze eta antolatze politikorako eskubidea eta manifestazino eskubidea galerazo egiten deusku eta ezkerreko proiektu abertzalea desagertu eragin gura dau, Batasuna eta beste erakundeak ilegalizatuz. Non dago, bada, demokrazia, askatasun barik eta aniztasun politiko barik?

Erasoa, halanda be, harago doa. Gure herriaren izaera bera ukatzen dabe eta gure hizkuntza, kultura eta hezkuntza sistema erasotzen ditue. Euskal beharginoi lanerako gure hartu-emonak antolatzea eta gure eskubide sozialak defendatzea ukatzen deuskue. Tortura basatia larriagotu egin da, dispertsinoari eutsi egiten deusie, errefuxiatuei euren herrian bizitzeko eskubidea debekatu egiten deusie eta... ikaragarria da jasan behar dogun manipulazinoa, guzurrea eta mespretxua!

Gure auzoan be eraso horreen lekuko izan gara askotan. Pirritx eta Porrotx pailazoei Atxuri eskolan jarduteko Bilboko alkateak ipini eutsen debekua, Bidebarrietako liburutegiko berbalde batetan Ertzaintza sartzea, La Bolsa zentro-

OHARRA: Ahalik eta eritxi gehienek tokia izan daien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun honeetan. Idatzi dauanaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, zuzendaritzak bere esku dau horretarako eskubidea. Erdaraz ailegetan diran gutunak ez dira argitaratuko.

an debekatu zan bideo-emonaldia, er-tzainek erasotu dituen makina bat manifestazino, polizien kontrol itogarria, auzoan egon diran atxilotetak...

Horregaitik guztiorregaitik, herritarrok nahikoa dala! esan behar dogu. Erasoei gura zein ez erantzun egin behar jakela pentsetan dogu. Batu egin behar gara uste dogu, mobilizatu, protesta egin. Baina modu berean, argi daukagu, gure herria eraikitzen jarraitu behar dogula. Itxaropenik badaukagu ikusten dogulako Euskal Herriak irabazi egingo dauela. Ez gagoz gu baino arinago borrokatu ziranen ahalegina eta lorpenak zakarrontzira botatzeko prest; ez gagoz gure ondorengoei bizi dogun egoera tamalgarri hau eta arima bako herri zapaldua eta zatikatua izteko prest.

Bilboko Zazpikaleetan sektore sozial askotako auzokideak, profesio ezbardinetakoak, andra eta gizon, gazte eta ez horren gazte alkartu gara Batasuna, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Askatasuna, Jarrai, Haika eta Segi erakundeen ilegalizazioari ezetz esateko, gure herriaren nortasunaren kontrako erasoei ezetz esateko, askatasunen murrizketari eta eskubideen bortxaketari ezetz esateko, baina... etorkizunari baietz esateko. Bai autodeterminazioari, bai herri eta herritar guztien eskubideei, bai demokraziari, bai bakeari eta bai Euskal Herriari.

Horrexegaitik, *Zazpikaleetako Harri ta Herri, gure herria defendatzeko deia!* eki-

menari gure laguntasuna eskaintzen deusagu, eta auzoko herritar guztioi eta gure auzora etorri gura dozuen guztioi dei egiten deusuegu hilaren 23an, zapatuan, 18:30etan, Arriagatik urten eta auzoko kaleak zeharkatuko dituan manifestazinora, alkarregaz ohikatu daigun... AURRERA!

Agiria sinatu dogu: Anjel Zelaia (irakaslea), Arri Zubeldia (euskaltegiko irakaslea), Peio Aramaio (dendaria), Manolita Bengoetxea (dendaria), Iñigo Bilbao (kazetaria), Juan Angel Etxarri *Naparra* (irakaslea), Natalia Gardeazabal (mogi-mendu feministako kidea), Amaia Guillamon (tabernaria), Felix Iragi (behargina), Angel Lucarini (arkitektoa), Lurdes Luke (konpartsetako kidea), Koldo Morales (itzultzaile eta Bihotzean alkarteko kidea) Josu Prat (behargina), Txema Uriarte (Tas Tas irratiko kidea), Iñaki Uruburu (medikua), Jon Zarraoa (irakaslea), eta Koldo Zuazo (filologoa).

Eskolarentzako duintasunezko egoitzea!

Jose Ramon Rueda • BILBO

Bilboko J.M. Sanchez Marcos Eskolako gurasook gogor salatu dogu Udalak eskolari lapurtu deusatzan lokalak, bai eta herritar guztiei jakin eragin udal agintariek eta Jaurilaritzak gure eskola bazter baten hondatuta itxi dabela be.

Uda osteko ikastaldia hasi zanetik hile bi pasau diran arren, eskolako gimnasioan obrak egiten dagoz eta Udalak Gizarte Ongizatea Sailaren zerbitzuren bat ipini gura dau eskolaren beheko solairuan. Gurasook eskolarentzako aspaldi eskatu genduzan lokalak dira horreek, pentsetan dogulako behar-beharrezkoak dirala bertan psikomotrizidade gela bat, areto nagusia edo umeen heziketarako gelak ipinteko.

Gizarte Ongizatearen Sailak ipini gura dauen zerbitzua auzoan alokatutako

edozein lonjan ondo baino hobeto egon leiteke, baina gure eskolak dituan egiturak premina larrian dagoz, nabarmen, eta hobetzeko daukagun modu bakarra lokal horreek eskolarako hartzea da.

Horren ganean berba egin guran, batzarrerako eskaerea egin deusagu Hezkuntza Saileko arduradunari, Uribarri jaunari, Eusko Alkartasunako kideari, baina harek ez deusku kasurik egin.

Badirudi gurea hirugarren mailako eskolea dala, gure seme-alabak bosgarren mailakoak. Foru Aldundiak mila milioi pezeta oparitu deusoz orain gitxi Athletic taldeari: Udalak 1.200 milioi pezeta gastau ditu Errekalde Zumarkalea irekitzen; Udalak eta Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailak 600 milioi pezetako inbertsinoa egin dabe Felix Serrano Eskolako gimnasioak egiteko; eta urtero-urtero Jaurilaritzak 60.000 milioi pezeta emoten deusoz eskola pribatuei...

Ez dogu gehiegikeriarik eskatzen, gura dogun bakarra da gure seme-alabentzako duintasunezko azpiegiturak eta zerbitzu sozialak eskolatik kanpo ipintea.

Solabarrietarenak ez dauka ez, erremediorik

Miren Gartzia • BILBO

Azkena: Ollargan parkean Diputazioaren armarri erraldoia ipiniko dabe, A-8 autopistatik Bilbora sartzen diran guztiek, baita miopiak jota dagozanek be, ikusteko modukoa, eta horretarako 100.000 euro gastauko ditue. Izugarria!

Gero esango deuskue Aldundiak diru gehiagorik ez daukala preminean bizi diranei laguntasun handiagoak emoteko, enplegu barriak sortzeko, hondatuta dagozan auzoak bizibarritzeko... Ez dot aditzen. Beno, aditu bi, onartzen ez. Solabarrietak hobeto egingo leuke ingurumenari kasu handiago egingo baleutso. Pentsatzea be Bilboko alkate izateko bere izena aitatu zala... Izugarria!

asfaltoko kronikak

Arkaitz Estiballes

Andoni eta Jon

Gure koadrilan osatu ezin dan zauria egin dabe espainiar polizia autonomikoek, hagineta raino armaturik lagun bi atxilotu deuskuez. Andoni, frontoian atxilotu eben, umeei eskupe-lota eskolak emoten egoala; Jon, barriz, oporretatik bueltan etorrela Galdakaora bidean atxilotu eben. Zapatua da eta artikulu hau idazten nagoala Madrilera deitu dot eta hara joan diranek oraindik ez dakiela ezer be esan deuste; epailearen aurrean inkomunikauta deklaratan ei dabilz, baina ez dakigu Jonek gaur edo astelehenan deklarauko dauen; ezinegona jasan ezina da.

Koadrilakook Andoni, Jon eta beste atxilotuen errubakoatasunean sinesten dogu eta askatu daiezala eskatzen. Zeozer egin badabe herriaren alde lan egitea

izan da, Adiskide Pilota Elkartean, herriko kultur taldeetan, presoen eskubideen alde, euskararen aldeko ekimenetan parte hartuz... hori da euren delitua, gazte eta euskaldunak izatea. Horreek ez dira gaur egungo gazteengan ohiko baloreak, agintariek ez dabe gura horrelako gazterik, beste gazte prototipo bat gura dabe: gazte sumisoa, egunez lantegian behar egin eta gauez telebista kontsumitzailea, politikaz paso egiten dauena eta asteburuetan hiru pilula eta ur botileagaz Non Stopera doana, bere *tunning* kotxea familia beste maite dauena, eta lagunak?

Gaur batzuk eta bihar beste batzuk, *por el interés te quiero Andrés*. Ez, Jon eta Andoni ez dira holakoak, euren lagunak lagunak dira, gizarte injustu honegaz kritikoak, eta gizarte barri eta justuago bat eregi gura dabenak, gizarte euskaldun eta libre. Horixe izan da euren delitua.

Espainiar polizia autonomikoak inkomunikauta euki dauz, ez dakigu euren egoera zein dan eta horretxek larritzen gaitu gehien, orain aste batzuk Ezkerraldean eta Uribe Kostan atxilotuek tratatu txarrak eta torturak salatu ebezan eta holako egoeran errubakoek burutu ez dabe-

zan ekintzak euren gain hartzen dabez, espainiar polizia autonomikoak herri honetan torturau egiten dauelako, Arkaute eta Intxaurren jabe bardinarenak diralako, txapel gorria janzten dauen Galindo asko dabilelako gure herrietan poteoan lasai. Bestela, horreek atxilotetok burutzeko frogak izan badabez, zergaitik ez dabez atxilotuak lehenengo egunean epailearen aurrean aurkeztu? Hemen PNV-EA-IU gobernu taldearen babespean inkomunikazioaren praktikak irauten dauen bitartean, sartu daiala lehen dakariak bere bakerako plana eztarriko kontrako zulotik. Gure koadrilearen partez besarkada sentikorra Andoni eta Jonen senideei, baita atxilotutako beste guztien senideei be. Atxilotuak errubakoak dira eta etxean gura doguz!